

2.7. Funtsezko baliabideak.

Gure enpresak funtsezko baliabideak behar ditu balorezko proposamena garatzeko, bezeroengana iristeko, bezeroekiko harremana mantentzeko eta diru-sarrerak lortzeko. Baliabide hauek beharrezkoak dira gure armairu adimendunaren proiektua arrakastaz martxan jartzeko.

1. BALIABIDE FISIKOAK

- Armairu adimenduna bera, botila bakoitza gordetzeko lekuarekin eta pisu-sentsoreekin.
- Botilak eta bestelako osagarriak, haurrek ura edateko erabiltzen dituztenak.
- Mantentze-lan eta garbiketa tresnak.
- Ordenagailuak eta sistema digitala, datuak jasotzeko eta gurasoekin partekatzeko.

2. BALIABIDE INTELEKTUALAK

- Software-a eta sistema automatikoa, haur bakoitzaren botila betetzeko eta datuak monitorizatzeko.
- Diseinu eta patenteak (etorkizunean erabil daitezkeenak) armairu adimendunaren eta aplikazio digitalaren inguruan.
- Marka eta identitatea, bezeroek proiektua ezagutu dezaten eta konfiantza izan dezaten.

3. GIZA-BALIABIDEAK

- Gure taldearen ezagutzak teknologia, hezkuntza eta nutrizio osasuntsuari buruz.
- Mantentze-lanak eta zerbitzu teknikoak egiteko langileak.
- Bezeroekin komunikazioa eta harremanak kudeatzeko langileak.

4. FINANTZA-BALIABIDEAK

- Proiektua abiarazteko kapitala, armairuak fabrikatu eta softwarea garatzeko.
- Mantentze-lanak eta eguneroko gastuak ordaintzeko dirua.
- Etorkizunean aplikazio digitala eta sare-sistema garatzeko inbertsioak.

ITURRIAK →

STARTInnova. (s. f.). <https://www.startinnova.com/>

TuLibrodeFP, SLU. (s. f.). IPE II 2025.

<https://libreria.tulibrodefp.es/inicio/287-ipe-ii-2025.html>